



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-05-04**

VIURTEA 1.425 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

IÑIGO ROYO ARGAZKILARIA

«Ikastaroetan jende guztiak barruan duen garra pizten saiatzen naiz»

TOLOSA Paisaiari buruzko argazkilaritza ikastaroa zuzentzen du Royo tolosarrak Kultur Etxean

LANBIDEA «Argazkilaritza inguruan dudanarekin harreman bat sortzeko topatu dudan bidea da niretzat», dio 6-7



Asteasun duatloian helmugaratzeko metro gutxira; Orexan, berriz, apustuko probetako bat kiskilarekin sagarrak biltzea izan zen. E. EZEIZA / N. URBIZU

HELDU DIRA HERRIKO JAIK GURERA

TOLOSALDEA Eskualdeko lehen jaiak izan dituzte asteburuan Asteasun eta Orexan; gaur izango dute azken eguna 4-5

Hirukide ikastetxeko Nagore Vallesek Urruzuno saria irabazi du

TOLOSA Saria poesia B sailean lortu du tolosarrak; 'Infernutik zerura' izena du bere lanak 5




Tolosaldeko Euskal Eskola Publikoa
Batxilergoko Irakasgaien Eskaintza Osoa

BATXILERGOAK
Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak

943 65 13 87
E-mail: 012980aa@hezakuntza.net www.orixe.net

Aurrematrikula: Maiatzaren 5tik 9ra



L **Laburrak****Aurrematrikula epea zabalik da Musika Eskolan**

TOLOSA • Tolosako Udal Musika Eskolan datorren ikasurterako aurrematrikula egiteko aukera dago jada. Honetarako bulego ordutegia da, astez: 10:00etatik 13:00etara. Ematen diren ikasgaiak hauek dira: akordeoia, pianoa, perkusioa, flauta, klarineta, oboea, saxofoia, bibolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua, baxu elektrikoa, tronpeteta, tronboia, tronpa, tuba, txistua eta dultzaina. Gainera, ez dago adin-mugarik.

Aurrematrikula epea zabalik da Musika Eskolan

TOLOSA • Oargi mendi elkarteak Alpeetara eta Atlasera mendi irteerak antolatuta nahi ditu abuztuaz. Beste bisita batzuk egiteko aukera ere izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Oporraldian parte hartzeko interesa duenak eta informazio gehiago eskuratu nahi duenak 637 830380 telefono zenbakira dei dezake. Izen ematea ere telefono zenbaki berdinean egin daiteke.

» Iritzia**Felix Irazustabarrena**
Uzturretik

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolarien Txapelketa jokatzeko da hilabete honetan. Gure eskualdean Alegian 16an eta Iru-ran 30ean, finala izango dena. Gure bertso-eskolako gaztetxoak prestatzen ari garen honetan gai eta oinen bila abiatu naiz egunkarietara.

Udalbiltzaren aurka zuzenean jo zutela lau urte bete dira aste honetan. Gure erakunde propio, nazionalak eratzeko, edukitzeko eskubidearen kontrako erasoa zen. Bilbon sortu zen orain bederatzit urte zazpi lurraldeetako 1.788 udal hautetsik hala erabakita. Eskualde honetako gehienak izango ziren Euskal Herriko egitura po-

Lau oinen bila

litiko berria osatzen lagunduz, nazio bat garela aldarrikatu eta bere eraikitzen zuzenean parte hartzeko borondatearekin.

Laster hasiko da orduan atxilotuta eraman zituztenen aurkako, erakunde bultzatu genuenon aurkako, Euskal Herriaren aurkako beste epaiketa bat. Udalbiltza, giltza, gabiltza...

Pentsatzekoa zen egun hauen atarian hura osatu zuten herriek, helburu haiek berrestea, haien alde azaldu zirenen aldeko elkartasuna edo helburuekin ados ez egon baina edukitzearen aldeko eskubidearen aldarrikapenerako, herriko udal etan mozioak, adierazpenak... egongo zirela.

Ez dut nik horrelakoen berri izan, ez dute behintzat hedabideek hori azaldu, egunotan behin eta berriz haiztzen direnak ordea juxtu polizi operazioaren ildo beretsutik doazenak dira. Mozio etikoak deitu diete. Herritarrek borondatea azaltzeko aukera izan duten leketan, borondate horrek jarritako udal hautetsiek kentzeko helburuarekin. Etikoa, betikoa, patetikoa...

Eta horrek ere funtzionatzen ez badu, errima ere jarriko ez diodan Garzon datorren etikoak salbatzera. Juxtu besteek mahai gainean jarritakoa eztabaidara eraman izanagatik, alkatearen betebeharra betetzeagatik, demokraziaren oinarria besteei ere aitortzeagatik, berriro udal hautetsi batek kartzela ezagutuko du. Ustela, kartzela, krudela...

EAJren laguntza duten PSOEen erasoek erakusten dute garbiago herri honek hitz egin behar duela. Erakunde egitura propioak edukitzeko beharra duela. Akordio minimoetara heldu, demokraziaren oinarriak jarri behar direla. Udalbiltzarekin hasitako bide hari jarraitzea dela modurik eraginkorrena herri honek aurrera egiteko. Berdintasun politikoa, lurraldetasuna, erabakitze eskubidea, horrekiko errespetoa... ez dute erimaten baina horiek dira euskal bertsoa osatzeko oinak, oinarriak, gure lana da oin horiek erimatu dezaten. Eta gaztetxoek beste batzuk bilatuko dizkiegu, bixiakoak eta jostagarriak.

Saltzaileentzat oso egun ona izan da, eguraldi onak erosleak erakarri baititu

Azoka • Produktu zerrenda ere zabala izan zen atzo: lehenengo marrubiak ikusi ahal ziren.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso alai izan zen, eta goizeko lehenengo orduetan erosleak azaltzen hasi ziren. Salmentak goiz osoan zehar izan ziren, eta azkenean, oso egun ona izan zuten saltzaileak.

Produktu zerrenda ere oso zabala izan zen, eta egun hauetako eguzkiak eta eguraldi onak asko lagundu duela esan dezakegu. Atzo aurtengo lehenengo marrubiak ikusi genituen, babak eta ilarrak mahai guztietan, ziza asko postuetan eta apaingarriko landareen eskaintza izugarria.

Landare apaingarriak, datozen asteetan gora

Datozen asteetan ere izando ditugu, eta dirudienek apaingarriko landareak adibidez gora egingo dute kopuruan. Perretxiko zerrenda ere mantendu egingo da eta zorte piskatekin gure inguruko mendietan ere ikusi ahal izando ditugu.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza Landareak		
Alegria	1,00	1,20
Geranioa	2,00	-
Erroneroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Klabelina	2,80	4
Kalendula	2,50	-
Lobelia	4,50	-

Bertako produktuak Perretxikoak

Ziza	6	36
Onddoa	15	-
Fruta		
Marrubia	4,00	-
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Baba	5,00	-
Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	12,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Zainzuria	16,00	-

Gaztak

Gazta berria	16,00	-
Behi gazta	7,00	7,50

Produktu ekologikoak

Baratxuria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60

A Asteko irudia**Larraitzen larre irekiera, festa giroan**

TOLOSALDEA • Eguraldia lagun zutela igo zuten pasa den Maiatzaren 1ean ganadua Aralarko larreetara, Enirio Aralarko Mankomunitateak antolatutako jaian. Eskualdeko jende ugari hurbildu zen Larraitzera bertan ospatu zuten festaz gozatzeko asmoz. Denetarik izan zen bertan: herri kirolen

erakustaldia, ganadua nonahi (zaldik, astoak, behorrak, idiak, artzain txakurrak,...), azoka postuak, artisau postuak... Honenbestez, urteko sasoirik beroena larreetan igaroko dute animaliek berriro ere jaisteko garaia heldu bitartean. MAIDER DEL OLMO / GOIERRIKO HITZA

Apirila Gorriaren balorazioa

» Iritzia

Sanblaspiiko Gazte Asanblada

Apirila Gorria, Sanblaspiiko Gazte Asanbladaren bilera batetik sorturiko inizatiba bat du. Bertan, beste herrietan egindako hilabete gorriak eredu bezala hartuz Tolosan gazteok kudeaturiko horrelako ekimen bat antolatzeari ekin genion. Horrela, maiatzak 1, Langileen Eguna erreferentzi bezala harturik, hilabete baten zehar ekimen ezberdinak egitea erabaki genuen.

Horretara, era simple batean lau hitzaldi eta kontzertu bat batu genituen geneuzkan kontaktu ezberdinetaz baliatuz, alegia Euskal Herria Sozialista, Komite Internazionalistak edota Euskadi-Cuba kolektiboak, eta Despericio musika talde lasartearra. Hasieratik jendeak harrera ona eman zion, nahiz eta gure aldetik asistentzia txikia espero. Boltzek eta Euskal Herria Sozialistak eskaini zuten hitzaldiak Euskal Herriaren egoera iraultzaren aurrean aztertu zuten jende andanaren aurrean. Azken orduko ordu aldaketei aurre eginda, harrera berdinarekin jarraitu zuten Pa-

lestinako, Venezuelako eta Kubako hitzaldiek, bi ordu luze zuten ikuspuntuak azalduz eta gure dudak argituz.

Batetik, Cuba eta Venezuela hautatu genituen, komunikabide handien desinformazioa jasateaz gain, neoliberalismo zantzaile-

ari aurre egiten duten prozesu eraldatzaileak suposatzen baitutela. Eta bestetik, Palestina erabaki genuen, palestinar herriak pairatzen duen zapalketa sionista munduko toki guztietan ezagutua izan behar delako. Era berean, Palestinaren aurkako sa-



Apirila Gorriari amaiera emateko kontzertuak izan ziren Otsabin. N. URBIZU

rraski sionista dirauen bitartean, mundu osoan zehar zabaltzen ari den Israelen aurkako boikotarekin bat egin genuen, Noa abeslari israelarraren ikuskizunaren aurrean (hark egindako adierazpen sionista ezberdinengatik, hau da, Israeldar estatu modernoak sortarazi duen judutar nazio askapenerako mugimendu erasokor espantsionistaren alde: Ariel Sharonen alde, Hamasen aurka...).

Tolosako mugimendu eskasari aurre egiteko aurrera eraman genituen ekintzak bere helburua lortu zuten, hots, Tolosako gazte-riari ikuspegi kritiko bat eskaini eta borrokan ari diren munduko herrialde zapaldu ezberdinei gure elkatasuna helaraztea.

Aktibitateen aldetik nahiko lokartuta zirudien Otsabi Gazte Lokalak auzoa eta herriarekiko bere lekua bete zuten, aisiaz aparte informazio alternatibo eta kritikoa eskainiz. Bestalde, bertan garatzen ari den Sanblaspiiko Gazte Asanbladaren ahalmena erakutsi digu Apirila Gorriak, etorkizunean antzeko ekintza edo bestelako antolaketa motak aurrera eramateko gai izango dela ziurtatuz. Inongo dudarik gabe, orokorrean esperientzia aberatsa izan da Tolosarako eta bere gazte mugimendurako eta hurrengo urteko Apirila Gorriari pentsatzen ari gara dagoeneko.

Rallyesprinta « posible egin zutenei » esker ona luzatu diete antolatzaileek

ERREDAKZIOA

Kilometroen antolatzaileek «eskerrik beroena» eman nahi izan diete pasa den apirilaren 26an egindako hainbat herriko errepi-detik barrena egin zen I. Nañari rallyesprinter inguratu zirenguz-tioi.

150 lagun lanean

Ikusle zein langile boluntarioen lana goraipatu dute antolatzaileek, «guztien presentzia eta ekarriari esker atera baitzen aurrera ekital-dia».

Guztira, 150 pertsonatik gora aritu ziren lanean egun horretan, eguna baino lehen aritu den per-sona-taldea kontuan hartu gabe. Ekitaldia askorentzat berria izan zen arren, «denen aldetik jasotako gaitasunak eta prestutasunak ahalbidetu zuten azken emaitza ederra izatea».

Dudarik gabe, ikuslerik gabe lana alferrikakoa izango litzateke eta, beraz, haiei ere eskerrak eman nahi izan dizkiete.

B Blogteka info

Gipuzkoako saskibaloitxapelketako partida

Hirukideko alebinak, astelehenean arratsaldeko 18:00etan Jesusitinetan Axular Lizeaoren aurka jokatu dute. Beraz neska bikain hauek animatzera etortzeko aha-leginak egitea eskatzen dizuegu. Aldi berean, Futbol Aretoko Txapelketako irabazleak dira.

Hirukide ikastetxea

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/bl-ogak/hirukide>

G Gutunak

Zorionak AGA (Anoetako Gazte Asanblada)

IX. urteurrena ospatzen ari zareten egun hauetan, ez ingenuen pasatzen utzi Anoetan egiten ari zareten lana eskertu eta goraipatu gabe.

Askotan entzuten dira gazteenganako iritzi ez hain baikorrak, baina guk benetan eskerrak eman nahi dizkizuegu urte hauetan

guztietan erakutsi duzuen jarrera eta lanagatik.

Zuk buruturiko lanaren ondorioz lortu duzue eredugarria den lotura eta elkarlana adin ezberdineko herriko gazteen artean. Esan genezake ondorengo gazteengan erreferente izatera iritsi zaretela.

Uztartzen jakin izan duzue jaia eta konpromisoa, Anoetako Gazte Asanblada bihurtu da herriko eragile nagusienetarikoa, zuen

ekarpen eta jardunik gabe ezin izango ziren burutu herrian egin diren hainbat ekimen.

Hor izan zarete, herrian eman diren bidegabekeriak salatzeko garaian, ingurumenari egin nahi dioeten erasoen aurka, herriko kultur hutsuneen osagarri, eta gazte dinamika berritzaile eta sustatzaile.

Bide batez azken urte hauetan Euskal Herri osoan gaztetxeen

eta gazte mugimenduaren aurka ematen ari diren erasoak salatu nahi ditugu.

Gura aldetik animatzen zaituztegu autogestioan et aparte-hartzean oinarritutako anotaketa lanean jarraitzea, eta behar gaituzuenarako ondoan izango gaitzuela gogoratuz.

Animo eta segi aurrera!

Mikel Urkola. Anoetako ezker abertzalea.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja
Tolosa (Bellatokia)

Auzoen arteko lehia gogorra izan da jaietan

OREXA ▸ Elbarrena, Urutxugain (Kaleakumeak) eta Intxaurrepekoak nor baino nor aritu ziren atzo eguerdian. Herri kirol berezi bezain ekidire botatik prestatu zituzten atzo Ozevan jaien baitan. Batzuk karretilan iraka edo sagarrak bilzen aritu ziren bitartean, besteak berri, maleta hartuta sarriak jantzi ezinik ibili ziren. Festei amaiera emateko, herri kirolak izango dira gaur arratsaldean, aizkole eta herri-jesatzailekin. Saioa 18:00a aldera hasiko da. Amaitzeko, sagardo dastaketa eta bertolanak izango dira. **12:00z**



Proben artean, ikiskidri sagarrak bildu zituzten ozearenak, honez gain, frontizan ere aritu ziren batzuk. **12:00z**

Ximonen jaitsieraren aurretik duatloi proba beroa egin dute

Astasu ▸ Mus txapelketa, pallazoen ikuskizuna eta musikaz gozatu zuten atzo Elizmendiko auzoan, gaur ere musika izango dute.



Lehenik korrika eginen dute elizta inguratuz. Gero bizkitatz bide luzeagoa. **12:00z**

NEREABURBU

Astasuako Elizmendiko auzoko jaiak atzo hasi ziren, eta Ximonen jaitsiera Bagariaren aurteko biharren hainbat ekitaldi. Ez zen bere jaitsieraren beharrik izan, duatloia egiti baituzten herriar gazteekin, behar bezala begindakoa.

Pailazoak, mus txapelketa eta Ximonen jaitsieraz ere gozatu zuten auzotarrak, atzoko eguzkipean. Gausean ere gozatu zuten, musika izan baituzten Erretoreteko etxeko afarian ondoren, eta gau epelak esperor zuten.

Duatloietako emaitzak
Bost maila ebeldinetan antolatuta zuten duatloietako txikienetan lehenak bukatzen Maren Mallor, Axel Arrikarte eta Ibai Melnaka izan ziren. 1. eta 2. maila onen artean, herri Txomin Ortiz de Zarate, Josu Arrikarte eta Iñigo Arzakas. Lehen neska Izarne Mallor izan zen, 3. eta 4. mailatan Julien Aizpuru,

Unai Lizarribar eta Ioritz Mallor aipatu behar dira.

5. eta 6. mailako kirolariak ere animatu ziren eta Peru Ortiz de Zarate, Andoni Urbeta eta Hodei Iratxe izan ziren azkarrenak. Azkeneko maila DBHko izan zen, eta Iker de la Iglesia, Joshua Arrate, Madiñi Otegi eta Iñaki Ansa animatu ziren proba hau egiten.

Parte-hartzea «berdintsu» mantendu dela adierazi dute bertako biztansek, baita giroan hori bezala dola ilusi da auztean, eguraldi lagundu baitzuen eta gazteek gozatu zuten dela hitz egin da. Lasterkari gazteak bilain aritu ziren.

Urruzuno saria irabazi du Nagore Valles tolosarrak

Tolosa ▸ Poesia B sallean jortu du garaipena: 'Infernutik zerura' du izena bere lanak bera da eskualdeko saritu bakarra.

EREDAKZIOA

Tolosako Hirukide ikastetxeeko Nagore Valles-Ibañeta Urruzuno saria irabazi du. Lehiaketako Poe-

sian B arloko sarira eman du. Berak idatzitako lana *Infernutik zerura* izendatzen da.

Literaturari lehiaketa hau Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzuak antolatzen du. Ekimena urterotero ematen da aurrera. Berriaz Euskal Autonomiarik Erakidagoko ikasleek hartzen dute parte. Oraingo honetan Tolosaldeko sarituli bakarra izan da Tolosaldeko neska.

Hilaren 8an, ostegunean, 18:00etan **ANTTON IZAGIRRE** eta **HEKTOR ESPIN** alkate ohia eta hautetsi independentistarekin elkarriketa digitala

HITZAren erredakzioan izango dituzue zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidai ditzaitezue.

www.tolosaldetikohitza.info webgunean



Lehen indian ikus daitekeen bezala, nahiko lan izan zuen 'Bulakak' ek gaitzerdik jantzeri, beste batzuk berriz esku-gurdari burutako ibili ziren. Amaitzeko, hiru taldeak sokotiran aritu ziren. **12:00z**

Gaztearen ere gastronomiari lekua eginez

ANOKETA ▸ Atzo, Anokoak Gaztearen IX. urteurreneko egitarauaren baitan, palata tortilla eta entzalsada lehiaketa antolatu zuten Gaztearen. Hemenengo auzoak alde batera utzita azaldu ziren Gaztearen hainbat gazte. Ondoren haviak bakabatu ahal izan zituzten. Arratsaldean, berriz, triki-potea izan zuten herriar zehar eta hainbat toki alatu zituzten. Gausean, berriz, 21:00etan afaria izan zuten Gaztearen. Bukatzeke, 23:00etan kontzertuak izan zituzten. EH Sukarrak jai zuten eskemakok berdinaren Buzo, Silikonari, DJ Bag izan ziren. Txarrikas jai izan zuten Gaztearen urteurrenaren azken ekitaldi bezala. **12:00z**



Beha Nafarroara mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak

Kirola ▸ Txango hilaren 11n izango da Beha-erribik ekialdu eta Iratiko Bagargi mendietan amaituko dute ibilaldia.

EREDAKZIOA

Alpino Uzturre mendi elkarteak hilaren 11rako mendirteera bat antolatu du. Oraingo honetan Beha Nafarroara izango da. Txangoari hasiera Beharribin (329 metro) emango diote. Eztevezatik bi kilometrotara hain zuzen ere. Bukatu berriz Iratiko Bagargi mendietan egongo dute.

Ibilbidean zehar, hau da, tarrean, Errozate (1.345 metro), Irau (1.152 metro), Okabe (1.466 metro), Menañ (1.411 metro), Arrehandatz (1.530 metro) eta Escalier (1.472 metro) mendiak igoko dituzte. Txangoaren itaupena, gutxi gora behera zortzi ordukoa izango da.

Ohioko den bezala, irteerara goizeko zazpietan abiatuko dira autobusak, horretarako Rondilla kakan garrantziko dira. Interea dutenek Alpino Uzturre elkartean bertan emain dezakete izena eskola 943 652 789 telefono zenbakira deituta. Txangoaren prezioa ondozongo da, bukidetik diruarentzat 1 euro, eta gaitortzearentzat, berriaz, 13.

Zazpie Pasako finalak erabakita daude

Alegia ▸ Banakakoan Gari eta Aritz ariko dira, eta binakako finalera Iriarte-Zubeldia eta Gari-Beñat pasa dira.



Gari alegiarrak bi finalerdik jokatu zituen. Irudian, banakakoan. **12:00z**

Aritz-Aitzu aritu ziren eta lehenengo bikotea gailendu zen 18-10 emaitzarekin. Jokari batek alortu bezala, «bi partidak ere nahiko gogorrak izan dira».

Finala zehazteke
Oraindik ez dakite noiz jokatuko dituzten finalak, baina seguru da Alegian izango direla. «Eskualduniez gude pilotari gazteak eta errekuperatzenko». Berez, finaletan, alegiarrak izango dira.

Bideoak, TOLOSALDEA ETALUZTARDEKO HITZAko webgunean hainbat bideo ikus dezakezue. Azkenak, Ozeako jaietakoak, Nafarri Rally esprintekoak, Apirila Gorriko kontzertuak edo Anokoak Gaztearen urteurrenekoak dira. Sar zaitze, eta ikus itzazu!

LANA
▸ **Iurgina**, Iurgin letarako pertsona behar du. Interea dutenek deitu dezatela ondongo telefono zenbakira: 655 22 70 58.

Iragarki laburrak

E Elkarrizketa

IÑIGO ROYO › Argazkilaria

Kultura » Proiektu ugari egin ditu, ari da egiten eta egingo ditu Iñigo Royo argazkilaria tolosarrak; une honetan erakusketa bat du Vigon, Tolosa inguruko irudiek.

NOELIA LATABURU

Bizitza erdia kamararen atzealdean igaro du Iñigo Royok (Tolosa, 1962). Orain, objektiboaren beste aldean eseri da, bere bizipenak, proiektuak zein irudipenak biluzteko beldurrik gabe.

Nola hasi zinen argazkilaritzan lanean?

18 urte nituela hasi nintzen argazkiak egiten. Zinema txikitatik nuen oso gustuko. Argazkilaritzan errakuntza batengatik hasi nintzela esan daiteke, izan ere lagun batzuk 16 urte nituela galdetu zidaten ea nik argazkilaritza gustuko nuen eta nik baietz erantzun, zinemagintzaz ari zirelakoan. Orduan nire urtebetze egunean, argazkigintzari buruzko liburua oparitu zidaten. Irakurtzen hasi, interesgarri iruditu zitzaidan, hortik argazki kamara bat erosi nuen eta horrela hasi nintzen.

Eta une horretan jakin zenuen argazkilaria izan nahi zenuela?

Ikasten hasi nintzen, psikologiako karrera egin nuen, baina argi nuen ez nuela psikologo bezala lan egin nahi. Hala, karrera bukatzerakoan, aurreztuta nuen diru pixkatekin eta Eusko Jaurlaritzaren beka batekin Madrilerajoa nintzen urtebetze argazkigintza ikastera, eta nire buruari argazkigintza lan on bat egin nezakeela demostratzen saiatzera. Horretan aritu nintzen urte eta erdiz.

Eta zer moduzko emaitza izan zuen?

Nonbait ez zuen emaitza hain txarra eman, izan ere, argazki batzuk egin nituen eta Kultura Sailak antolatutako *Certamen Nacional de jóvenes fotografías* irabazi nuen, 1988an. Horrek aurrera egitera asko animatu ninduen eta ordutik honetan jarraitu dut, gora beherekin, erakusketak eginez han eta hemen. Oso lotuta egon naiz Artelekura, niretzat oso garrantzitsua izan da.

Zinema gustuko zenuen, beraz. Lanik egin al duzu horretan?

Bai, bideoen bat egin dut, baita zinema pixkat ere. Orain, esaterako, proiektu batean ari naiz lanean, ondo badoa Tabakaleran aurkeztuko dena, udazken aldera.

Zertan datza lan hau?

Hemen Tolosan hasi ginen *Espereintziak* proiektuarekin lotzen da, non 70 urtetik gorako pertsonak elkarrizketatu genituen. Kasu honetan, berriz, tabakoko fabrika langile izandakoak elkarrizketatu ditugu, baita fabrika honen ondo-

«Egilearen eta munduaren arteko harremana erakusten dute merezi duten argazkiek»



rioz sortu zen auzoko bizilagunak ere. Oraintxe muntatu dugu lana.

Gustura geratu al zara emaitzarekin?

Esan dizudan bezala, niri zinema gustatu izan zait beti eta lan honekin oso gustura geratu naiz. Gainera, sei-zazpi hilabete eman ditugu lanean.

Zer alde ikusten diozu zinemagintzari eta argazkigintzari?

Argazkigintzari ikusten diodan abantaila bakarrik lan egitea baitmentzen dizula da, eta aurrekontuaren beharrik gabe. Tira, abantaila baino ezaugarri esango nuke. Bideoak, aldiz, lantalde baten eta aurrekontu baten beharra du.

Zuk, beraz, bi gauzak uztartzen dituzu.

Bai, hori ondo dago. Inorki nahi ez duzunean, argazkilaritzak isolatu egiten zaitu, bakarkako lana da. Bideoa, aldiz, taldekako lana da. **Artelekuk zure bizitzan izan duen garrantzia ere aipatu duzu.**

Duela 20 urte sortu zuen Aldundiak Arteleku eta nire belaunaldiko jende guztiarentzat oso garrantzitsua izan dela iruditzen zait. Erreferentziako gune izan zen, lanerako gune, alor gehiago ezagutzeko aukera ematen zigun gunea, lan artistikoak burutzearan alde egiten zuen gune, ... Horrengatik izan zen garrantzitsua, izan ere, esaten dena esaten dela ere, bizitza ez du argazkiak egitera gonbidatzen, ezta artearekin loturiko gauzak egitera ere.

Bizitza osoa eskaini diozu argazkilaria baina, zer da zuretzat argazkilaritza?

Egia esan, ez dakit. Jakin badakidana da bizitzan zoriontasun unek daudela proiektu batzuk burutzeari lotuta daudenak. Esaterako, ideia bat duzu pentsatzen duzu zerbait harrapatu duzula ideia horri esker eta une horretan zoriontsua zara. Hori da oinarrikoena, horrek bultzatzen dit niri honetan lanean jarraitzea. Argazkilaritza bere horretan ez da ezer, izatekotan nik inguruan dudanarekin harreman bat sortzeko topatu dudana bidea da.

Zure ibilbidean zehar izan dituzun proiektuetatik, zein duzu bereziki gogoan?

Ibilbide profesionalari buruz hitz egitea barregurea sortzen dit [kar, kar]. Proiektu guztiak etengabe linea bat mantentzera behartzen zaituzte. Beti saiatu izan naiz ahal dudana eta nahi izan dudana egiten. Ez diot helmugarik jarri inoiz

nire buruari. Txikitan esaten zigutena 40 urterekin batek bazekiela zer izan nahi zuen gezurra dela konturatzen zara. 45 urte izatera heltzen zara zer zaren oso ondo jakin gabe, baina beharrik ere ez!
Ez duzu ibilbide profesionalen sinesten beraz.
Ez, ez nire ibilbidean ez inoren ibil-

«Argazkilaritza inguruan dudanarekin harreman bat sortzeko topatu dudan bidea da niretzat»

«Argazia bakarka eta ia aurrekonturik gabe egin daitekeen lana da; bideoak talde bat eskatzen du»

«Proiektu bat amaitzean gehiegi erreparatu gabe atzean utzi eta hurrengoari eusten diot»

bidean. Azken batean pertsonak ahulegiak gabela iruditzen zait; ahal duzuen egitea nahiko da.

Hala ere, gusturago sentituko zinen proiektu batzuekin besteekin baino.

Bai, hori bai. Onena beti azkena da. Egin dudana gauza guztiei diet miresmena. Askotan gertatzen zait lan hori bukatu eta jada ezin dudala gehiago horrekin, ulertzen? Uste dut egia dela esaten den hori, batek ez dituela bukatzen gauzak bukatuta dituelako baizik eta ezin duelako gehiago horrekin. Proiektu bat amaitzean hori atzean utzi eta hurrengoari eusten diot. Zoriontsu naiz buruan egin ditzake-dan bizpahiru proiektu ditudanean. Egindakoa baino, etorkizunekoan pentsatzen dut. Horregatik diot beti lan onena azkena dela.

Eta zein da zure azken lan hori?

Oraintxe Vigoko erakusketak gela batean jarri dudana. Gainera, Tolosako eta Tolosa inguruko irudiak ditu, Madril eta Gasteizko pare bat argazki izan ezik.

Eta etorkizunerako badituzu proiektuak buruan?

Bai, proiektu bat dut, aspalditik buruan daramadana, baina oraindik ez naiz hasi horrekin. Gogoia ere behar izaten dut proiektu berri bati eusteko.

Noiz uste duzu ekingo diozula?

Ea udaberri honetan bertan ekiten diodan. Lehenik eta behin orain dudana itxi nahiko nuke. Beti gertatu ohi zait proiektu bat bukatzean, nolabaiteko bajoia ematen didala, depresio moduko bat ematen didala, baina txikia, e? [kar, kar].

Nola ikusi duzu azken urteetako argazkilaritzaren garapena, digitalizazioaren sorrerarekin?

Gai zail samarra da hau. Argazkilaritza, duela 10 urte arte behintzat, argiak uzten duen aztarna zen. Digitalizazioaren helduerak hau guztia moldatzen du. Abantaila ugari ditun arren, argazkilaritza digitala ez dela erabat argazkilaritza iruditzen zait, argiak garrantzia galtzen hasten den heinean.

Zergatik diozu hori?

Argazki digitalak argiaren beharra hain handia ez izateari ekin dio, modu honetan, ustez argazkigintzakoak diren irudi asko ez dute argirik behar. Beraz, argazkigintza digitala ez da argazkigintza, beste zer baita. Beraz, digitalizazioak irudiei dagokionez kontzeptu ugari

ri aldatzen ditu. Digitalizazioa sartu da, baina oraindik oso gogor azaltzen da aurretik zegoena. Eztabaidagarria da. Argazki digitala argazkigintzatik baino pinturatik gertuago dagoela iruditzen zait.

Zer argazki kamara mota erabiltzen duzu?

Ez zait hain garrantzitsua iruditzen erabiltzen den argazki kamara, baizik eta argi izatea zuk duzun kamara horren abantailak eta mugak. Horrela ez diogu eskatuko eman ezin diguna.

Orduan, zer izan behar da kontuan argazki on bat egiteko?

Gelditu eta begiratu; gelditu eta begiratu. Ez dago argazki on bat egiteko errezetarik. Merezki duen argazki bat izango da egilearen eta munduaren arteko harremana erakusketan duena da. Honek guztiak ez du zerikusirik ez teknika-rekin ez argazki kamararekin. Azken batean, teknika nolabait egilearen babesa da, aitzakia benetan garrantzia duenari aurre egin nahi ez diogunean.

Bereziki gustuko duzun argazkilaririk ba al dago?

Oso gustuko ditudan argazkilariak egon badaude, goresten ditudanak baina egia da ez dutela eragin handirik izan nigan. Oro har, beste argazkilarien lanak distantzia handiz ikusten ditut. Gehiago naiz zi-

nema ikusle argazkilaritza ikusle baino. Halaber, literaturak eragin handiago izan du nigan argazkilaritzak berak baino. Nire lanean eraginak anitzak izan direla esango nuke.

Lan bat aukeratzekoan, zertan oinarritzen zara?

Ez dakit, suposatzen dut argazki-

«Proiektu bat bukatzean nolabait depresio txiki bat izaten da, gogoia behar da berriari ekiteko»

«Argazkigintza digitalean argiak garrantzia galtzen duen unetik, ez da erabat argazkigintza»

«Teknika aitzakia da askotan, benetan garrantzia duenari aurre egin nahi ez diogunean»

laritzako lanak arduratu batzuen ondorio direla. Nik ez dut estiloan sinesten, arduratu batzuk daudela sinesten dut. Nire argazkiak arduratu horiek askatzen saiatzen dira.

Jarri iezadazu adibide bat.

Bai, esaterako nire azken lana. Lagun margolari bat nuen, Vicente Amestoy, eta behin bere koadrorei

argazkiak egiten ari nintzela, niregana gerturatu eta esan zidan: «Inigo, zein itsusia den kalea». Duela urte batzuk hil zen. Hura oso barnean geratu zitzaidan. Eta uste dut egin dudana lana esaldi horren emaitza izan da, 18 urte beranduago. Zer ikusi du horrek kamararen botoiekin? Ezer gutxi.

Argazkilaritzaz ez dakienari zer aholku emango zenioke kamara bat eskuetan hartzeko?

Nik ematen ohi dudana lehen aholkua da argazki bat egitea funtsean zer bait enkuadratzea dela, hau da, errealitatea marko batean sartzea. Hemendik aurrera, enkuadratzea gauzak kentzeko prozesu bat da, jartzekoa baino, hau da, enkuadre bat egitean beharrezkoak ez diren elementuak kanpoan utzi behar dira, interesatzen zaizuna bakarrik harrapatzeko.

Kazetaritza argazkilaritza nola ikusten duzu?

Oso zaila da, batez ere, oso argazkilarionak dauden arren, prentsaren egunerokotasun horretatik ihes egitea oso zaila delako. Presio hori nekagarria da, ez dute denborarik, kazetaritza gertatzen zaizuen. Halere, argazki onak eta txarrak ikus daitezke.

Argazki erakusketak bat nola baloratzen duzu?

Saiatzen naiz pentsatzen ea egileak zer kontatu nahi didan. Eta kontatu nahi didan hori nola kontatzen didan. Azken batean, argazkiak istorio bat kontatu behar ditu. Teknikoki oso ondo dagoen argazki batek ez badit ezerrez kontatzen ez du balio.

Gustuko al duzu besteek zure lana baloratzea?

Azkenean lanak besteentzat egiten dituzu. Inor egongo ez balitz ziurrenik ez genituen lanak egingo. Lanak erakutsi nahi dituzu, berezko bizitza har dezaten. Baina, oro har, ez zait gehiegi axola besteek esaten didatena. Lan bat bukatzean badakit ahal nuen guztia eman dudala. Noski, iritzi batzuk eragin handia dute nigan.



N. LATABURU

«Ikastaroetan jendearen garra pizten saiatzen naiz»

Ikastaroak » Paisaiari buruzko argazkilaritza ikastaroa lantzen ari da tolosarra Tolosan.

N. LATABURU

Jende ugari eman zuen izena Iñigo Royok Kultur Etxean ematen duen ikastaroan parte hartzeko. Bitalde banatu behar izan ditu argazkilariak.

Zer bilatzen du jendeak zure ikastaroetan?

Askok uste dute nik argazki ona egiteko errezeta dudala, baina egia esan ez daukat oso argi argazki onaren kontzeptua. Barnean dituz-

un ardurak askatzea da garrantzitsua.

Aipatu dituzun barneko arduraren garrantzia irakastea zaila izango da.

Bai, orokorrean, ikastaroetan lehendabizi teknika da eta gero gaitzertzea eta alderantziz izan behar luke. Baina hori azaltzea oso zaila da. Jendeak ere arduratuago dago bere kamararen erabilerarekin beste ezerrekin baino. Baina oraingo ikastaro honetan garrantziaz ematen ari naiz hori.

Ze mailatan ari zara lantzen ikastaro hau?

Udakenean hasiberrientzako tailerra egin genuen. Horregatik oraingoan maila altuago batean

pentsatu nuen. Paisaiari buruzkoa da.

Hainbeste jende zuzentzea ez da erraza izango?

Pozgarria da jende askok izena ematea. Baina nire lana zaildu egiten du, euren artean oso ezberdina den jendea dagoelako, esperientzia oso ezberdinak dituzte. Ez dakit oso ondo non kokatu. Hasiberrientzakoak irazten dira.

Zein da helburua?

Batik bat jendeak ondo pasa dezala eta egiten denarekin disfruta dezala. Noizbehinka kaina pixkat sartzea ere ongi dago.

Nola antolatzen dituzu eskolak?

Honetan zehazki, hiri paisaiarekin hasi gara. Lehenengo astean zehar

gai hau landu duten argazkilarien lanak erakutsi nizkien. Ondoren, Tolosako zonalde baten argazkiak egitea proposatu nien; Nafarroako zubiaren eskuinaldean eta goraldean geratzen dena, hau da, Kondeko aldapa, Berazubi, Sputnik, Usabal, Amarotz,...

Nola neurtzen duzu euren lana?

Laguntzen saiatzen naiz. Argazkiak ikusi eta komentatu egiten ditugu, komentario horiek eraikitzaileak izan daitezten saiatzen naiz. Barnean duten garra pizten saiatzen naiz, guztiok duguna.

Jendearen harteko aldea nabaria al da?

Badago jendea begiaren aurrealdean laino bat duena, *tak* berezia

du, dohain berezi bat. Tailer guztietan topatzen duzu batetan bat laino honekin. Batzuetan sentitzen dut hitz egiten eta inorrek ez didala harrapatzen eta badakizu laino duenak harrapatzen didala.

Zure lanak erabiltzen al dituzu oinarri bezala?

Ez, ez [kar, kar]. Ohitura bezala, nire lanak azken astean erakusten dizkiet. Orain ematen ari naizen ikastaroan ziurrenik ere hori egingo dut. Arduraz eta sentimenduez hitz egiten didanez, nolabait zintzo jokatzeko da nik egiten dudana erakustea. Hiru hilabete igarotzen ditut euren lanak ikusten eta baloratzen. Zer gutxiago beraiek ere nireak ikusteko.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Zizurkil.** Andatza eguna:
10:30ean plazan elkartuko dira
Andatzara joateko. Norberak bere
bazkaria eraman beharko du.

Deialdiak

■ **Anoeta.** Herriko festetako haur
danborradan parte hartu nahi du-
tenek udaletxean edo ikastolan
eman dezakete izena, maiatzaren
7a baino lehen.
■ **Anoeta.** Koadrilen Eguneko baz-
karia eta afaria maiatzaren 17an
egingo da frontoian. Izen-ematea,
Itzuli edo Buztina tabernetan 7,5
eurotan.
■ **Ikaztegieta.** Herri Urratsera
maiatzaren 11n joateko Udalak au-
tobusa antolatu du. Izena Udal bu-
legoetan eman behar da. 6 euro
balio du.
■ **Tolosaldea.** Herri Urrats-erako
autobusak antolatu ditu maiatza-
ren 11n. Izen-ematea Galtzaundiko
egoitzan izango da (8:00-
13:00etara eta 16:00-20:00eta-
ra).

Irteerak

■ **Tolosaldea.** Maiatzaren 17an eta
18an asteburu pasa antolatu dute
Lekunberrira. Bertako zuhaitzen
eta tirolinen abentura parkera bisi-



Umetxoenen pilotakadak

ALBIZTUR ■ V. Hitza Pilota Txapelketako partidak mar-
txan daude eta hainbat herritan jokatzeko ari dira: Al-
bizturren, esaterako, Alebinak dabilta jolasten, osti-
ralero bertako frontoian. Herenegun jende asko joan

zen ikustera; izan ere, binakako lau partida jokatzeko
dituzte ostiralero, 19:00etatik aurrera. Irudian, Aurre-
ra-Saiatzko Aldalur-Martin eta Bergarako Balgañon-
Aristiren arteko partidako une batean. ESTI EZEIZA

ta egingo dute, piszinara, ibilal-
diak... Prezioa 50 euro da eta izena
Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul
eta Zizurkileko liburutegietan.

■ **Belauntza.** Kultur Etxeak Erri-
xako bodegak ezagutzeko irtera
antolatu du Maiatzaren 10ean. Bo-
dega batean gosalduko dugu, gero
Laguardian goiza pasa eta La Pue-
bla de Labarcan 3 bodega ikusi on-
doren 4. batean bazkalduko dute.
28 euro.

■ **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak
Alpeetara eta Atlasera mendi irte-
erak antolatu nahi ditu abuztu-
an. Beste bisita batzuk egiteko aukera
ere izango da. Informazioa eta
izen-ematea, 637 830380 telefo-
noan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta,
1. 943 673649.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Na-
gusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya
kalea, 112.
BIHAR
■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernika-
ko arbola, 3. 943 651040.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar
kalea, 43. 112.

**HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esanen
eta iritzien erantzunikuzinik.**

A Agurrak



Urte askoan

Joxepi (Tolosa).
Zorionak familiaren partetik.
Muxu bat.



Urte askoan!

Julen Garmendia (Abaltzisketa).
Gaur urtebete. Muxu handi bat
familia eta bereziki Belenen partetik.



Urte askoan!

Mikel.
Astehenean 3 urte. Muxu
potloak etxekoan partetik.



Urte askoan!

Urki Artola Amundarain (Tolosa).
Gaur 3 urte. Zorionak
eta muxu bat denon partetik.



Urte askoan!

Garikoitz Etxeberria. Garik atzo urteak. Zorionak eta urte askoan.